

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	EUSKARA ETA KULTURA		
IRAUPENA	Ordu eta erdi	EGUNA	2019-06-19
GAIA	Denetik	DEIALDIA	20:30
PARTE HARTZAILEAK			
Aloña Murua	Irati Aldazabal	Iñigo Igartzabal	Ezin etorria adierazi dute:
Blanka Lopez	Aratz Igartzabal	Ainhoa Arratibel	Xabat Goikoetxea
Nekane Agirre	Eresti Oiarbide		Leire Murua
Marian Bidegain	Arantzazu Baztarrika		Marian Bidegain
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK		
36ko gerran ibili ziren gabiriareei buruzko lana	<input type="checkbox"/> Aimar Maiz 36ko gerran ibili ziren gabiriareei buruzko lana egin du. Liburu mardula + CD bat 25 minutukoa elkarrizketekin. <input type="checkbox"/> Aurrekontua: 20.000 €. Jasotako diru-laguntza 3.850 €.		
Euskara Eskolak	<p>Balorazioa irakaslearena: asistentzia eskasa, jarraipena egitea zaila. Datorren urtera begira: Roberrek eta Ivankak ez dakitela esan dute, gustura jarraituko luketela, baina ez dakitela egutegia zein izango den. Fabiolak ez du erantzun.</p> <p>Eneritzekin egotea komeni da udako oporren aurretik datorren urteko eskolen propagandarako esku-orriak eskatzeko (UEMAk egiten ditu). Irailean banatzen dira eta ikasturtea urri aldera hasten da. Iñigok pasatuko digu interesa izan dezaketenen zerrenda.</p>		
Udaberri kulturalaren balorazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola-umeen antzerkia: oso ondo; jende asko. - Tomiris: adin ezberdinetako jendea, ondo! - Sokatira: luze... Baina jendea elkartu zen. - Makrobiotika ikastaroa: jende gutxi, baina oso ondo. Aurreko urteetan, agian, jendea gehiago elkartu izan da, baina bertaratutakoak gustura. Esperientziduna zen, eta nabaritu egin zen. - Umeentzako filma: ez dakigu... (Euskalencodings: film asko daude euskaraz. Azpitoluak.eus: azpitoluak euskaraz jartzeko). - Dantzari txikia: oso ondo, oso arrakastatsua izan zen. Arratsaldekoan oso giro ona egon zen, musikarekin. - "Denbora izeneko leku bat": oso ondo. - Leharrei: ondo joan zen, jende asko. Datorren urtean motza eta luzea. - Eusklabo alaiak: bikaina! Hartu-emanerako aukera handia ematen du, baina jendeak ez zuen parte harut; pena. Kontaktua badaukagu eta datorren urterako ikuskizun berria badu, eta eska diezaiokegu etortzeko. 		

	<ul style="list-style-type: none"> - Korrikako pintxo lehiaketa: oso ondo! Irizpideak ez omen ziren argi azalduta egon. Bertso-saioa oso ondo. - Peru harrira irteera. Egun osoko plana oso ideia ona da. Autobusa ez zen bete, baina urteetako ohitura moduan zabaltzen joatea posible da. Ezkabara, Iruña-Beleia, Gesaltzara, Albaolara edo Xalbadorren etxera egin daiteke datorren urtean. Autobusaren ideia oso-osoa da. - Erraiak: zoragarria! Hartu-eman ikastaroa egin daiteke Ameliarekin-edo; jendeak interesa azaldu zuen. - Goruntz Dantza Taldeko nagusien saioa: oso jende gutxi. Bi herritarren bertso-saioak izan ziren egun berean eta horrek eragina izan dezake. Komunikazioa eskasa izan zen, gehiago zabaldu behar da. - OHARRA: musika-eskolakoei eta marrazketakoei astean zehar diren ekintzetan zein egunetan behar dugun areto nagusia aurretik abisatu behar diegu. - Rita: oso-osoa da. Jasotzen eta montatzen ondo, jendea hurbildu zen. MOKOZORROTZA: Aitziber Garmendia Jon Plazaolarekin egiten ari den antzerkia interesgarria izan daiteke datorren urterako. - Jubilatuen afaria: ondo. Zozketak egin ziren, eta ondo. - Kirolarien mahai-ingurua: ederki! Junek gutxi hitz egin zuen, oso gaztea da, normala. Eneritzek oso lan ona egin zuen. Mahaia oso anitza. Jende asko etorri zen. Datorren urterako: Jon Tena (BTT); Ainhoa Sanz (atleta); Gema Hernandez (triatloia); arku tiraketa egiten duen neska bat, ezintasun fisikoa duena. - Musika-eskolakoen saioa: kontzertu ona, baina oso jende gutxi. - Ume-jolasak: ondo joan ziren, gurasoek ez zuten asko parte hartu.
San Juan bezpera	<ul style="list-style-type: none"> - Kalejiran suaren ingurura joan, dantza egingo dute, agian txalaparta joko dute. Pastak eta edana egongo da.
Euskaraldia 2020	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen begirakoa ez ezik, entitateen begirakoa ere izango da. 2020 hasieran eman ahalko dute izena entitate moduan, baina horretarako guneren bat izan beharko dute bertako partaide guztiek ulertzen dutena. Diagnostikoa egin behar dute, eta horretarako tresna Topagunetik emango digute. Guk entitateetara joan beharko dugu diagnostikoa egitera eta ondoren, ahal badute, izena ematera animatzeko - Garrantzitsua da 2018an egindako lanari jarraipena ematea jende gehiagok pertsona moduan izena eman dezan.
Irakurleen txokoa	<ul style="list-style-type: none"> - Urriaren 5ean, Basa liburuaren ingurukoa izango da, Miren Amurizarena. Irenek propaganda egingo du gazteen artean; ea jende gehiago animatzen den. - Hilabete aurretik-edo bandoa bidali behar da. IRAILAK 5

HURRENGO BILERA:
Irailaren 4an, 20:30ean.